



EGILEENTZAKO EUROESKUALDEKO EGOITZA

[Euroregional Green Audiovisual Hub](#) proiektuaren esparruan, KSIgunek - Euskadiko KSIentzako Goi Mailako Hezkuntza eta Ikerketako Klusterra, CLAVNAK - Nafarroako Ikus-entzunezkoen Klusterra, eta Angulemako Pôle Image Magelisek egileentzako egoitza-programa bat garatzeko ari dira lankidetzan, Euroeskualdean animazioko idazketa-proiektuak bultzatzeko.

Xedea

Euskadiren, Nafarroaren eta Akitania Berriaren arteko lankidetzaren helburua da 3 gidoilari egoitzan jasotzea, eskualde bakoitzeko bat, 3 astez (astebetez eskualde bakoitzeko).

Aipatutako 3 eskualdeetan kokatutako animazio proiektuen gidoilariak irekita dago egoitza, egile bakoitzeko proiektu baten mugarekin. Programa honetatik kanpo geratutako pertsona juridikoak (enpresak, elkarteak, etab.).

Egoitzarako laguntza

Egoitzak irauten duen bitartean, profesionalen (ekoizpena, errealizazioa, estudioko zuzendaritza, ibilbide ezaguneko gidoilariak, etab.) laguntza jaso ahal izango dute, idazketa prozesuan aholkularitza jasotzeko.

Egile bakoitzak 2.000 euroko beka jasoko du, KSIgunek, CLAVNAK edo Pôle Image Magelisek ordainduta, hurrenez hurren, lurralde bakoitzeko hautaketa prozesuaren ostean.

Horrez gain, ostatua, otorduak (asteburuetan izan ezik) eta bidaiak ere barne egongo dira.

Egoitzaren zehar, lurralde bakoitzean, lokal eta ekipo egokiak jarriko dira egileen eskura.

Egutegia

- Proiektuen deialdia zabaltzea: 2024ko urriaren 28a
- Hautagaitzak aurkezteko azken eguna: 2024ko abenduaren 10a
- Gidoilari hautatuen iragarkia: 2025eko urtarrilaren 31a
- Egoitzaren antolakuntza: 2025eko otsaila (bidaiaren antolaketa, ostatua eta lan egutegia)

- Egoitzaren hasiera:
 - Akitania Berria (Angoulême): 2025eko martxoak 3-7
 - Nafarroa: 2025eko martxoak 10-14
 - Euskadi: 2025eko martxoak 17-21

Onargarritasuna

Onartuak izateko, gidoilariak honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Deialdi honetan aipatutako hiru lurraldetakoren batean bizitzea
- Gidoilari gehiagorekin euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez lan egiteko interesa eta prestutasuna izatea
- Egonaldian parte hartzeko konpromisoa eta eskuragarritasuna izatea (3 aste guttira, astebete lurralde bakoitzeko)
- Gidoi-proiektu bat garatzeko bidean izatea

Onartuak izateko, proiektuek honako irizpide hauek jarraitu behar dituzte:

- Dagokien lurraldeko hizkuntzan idatzia egotea
- Zinema edo telebistarako eginak izatea (hartzaile publiko guztiak berdin hartuko dira kontuan)
- Animaziozko lanak izatea
- Hasierako edo berridazketako fasean egotea

Eskaerak honako elementu hauek jaso behar dituzte:

- Motibazio-gutuna, egoitzako espektatibak eta aholkularitza jasotzeko profesionalen profilaren lehentasunei buruzko informazioa adieraziz,
- Proiektuaren eta publiko hartzailearen deskribapena
- Sinopsia, 3 orrialdekoa gutxienez
- Gidoilariaren CVA (esperientzia handiagoko profilak zein berriak baloratuko dira)

Jasangarritasun irizpideak

Euroregional Green Audiovisual Hub taldeko kideek sektoreko jasangarritasunari ekarpena egiteko konpromisoa dute, eta ingurumen arloko jasangarritasun irizpideak erabiliko dituzte bidaiak eta ostatua antolatzean, bai eta egoitza eta idazte prozesua garatzeko ikuspegiari eta laguntzari dagokienez.

Harremanetarako:

Lurralde bakoitzeko eskerak helbide hauetara bidali beharko dira:

Euskadi: ksigune@ksigune.eus

Nafarroa: cursos@clavna.com

Akitania Berria: mmartinot@magelis.org



Hub-ri buruz

[Euroregional Green Audiovisual Hub](#)–ak Euroeskualdean ikus-entzunezko sektorea treba dadin lortu nahi du, baita mugaz gaindiko sare profesional bat sortu ere, proiektuak partekatuta balio-katean.

Hub-a Euskadiko Kultura eta Sormen Industrietarako Goimailako Hezkuntzako eta Ikerketako [KSIgune](#) klusterrak bultzatuko du, [CLAVNA](#) Nafarroako Ikus-entzunezkoen Klusterrarekin eta [Pôle Image Magelis](#)ekin lankidetzan.

ksigune

KSIentzako Goi Mailako Hezkuntza eta Ikerketa
Educación Superior e Investigación para las ICCs

CLAVNA

cluster
audiovisual
de navarra

nafarroako
ikusentzunezkoen
klusterra

audiovisual
cluster of
navarre

**Pôle Image
Magelis**
Angoulême

Proiektu hori «Euroeskualdeko Berrikuntza 2023» deialdiaren esparruan hautatu eta lagundu du [Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLET Euroeskualdeak](#), euroeskualdeko enpresa-sarea indartzen laguntzeko.



NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARRORA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA